



## **ESKOLA KIROLAREN LURRALDE KONTSEILUAREN BILERAREN AKTA**

2012ko ekainaren 12ko 18:10ean, Kirol Etxeko Juan Muguerza aretoan, Eskola Kirolaren Lurralde Kontseiluaren ohiko bilera izan da. Deialdiaren gai-zerrenda osatzen duten gaiak jorratu dituzte bertan.

Bertaratuak honakoak izan dira:

- \* Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik
  - Asier Sarriegi, Kirol zuzendari nagusia, bileran buru izan dena.
  - Imanol Fernández de Larrinoa, kirol teknikaria.
  - Ramón Martiarena, Eskola Kirolaren Lurralde Kontseiluaren idazkaria.
  
- \* Gipuzkoako udalen aldetik
  - Arkaitz Angiozar, Lezoko Udalekoa.
  - Edorta Badiola, Zarauzko Udalekoa.
  - Ramón Mujika, Elgoibarko Udalekoa.
  - Manolo Aierbe, Hernaniko Udalekoa.
  - Beatriz Mena, Villabonako Udalekoa.
  
- \* Kirol federazioen aldetik
  - Pedro Echarri, Gipuzkoako Saskibaloï Federaziokoa.
  - Iñigo Alkain, Gipuzkoako Judo Federaziokoa.
  - José Ángel Rial, Gipuzkoako Karate Federaziokoa.
  
- \* Ikastetxeen aldetik
  - Aitor Pérez, Errenteriako Orereta Ikastolakoa.
  - Susana Santor, Arrasateko Herri Eskolakoa.
  - Fernando Urien, Zarauzko Lizardi Institutukoa.
  - Pako Urrestarazu, Ataungo Joxe Miel Barandiaran-ekoa.
  - Iban Maritxalar, Usurbilgo Udarregi Ikastolakoa.

### *Banatutako dokumentazioa*

- . 2012ko maiatzaren 8ko bileraren akta
- . 2012-2013ko jarduera programaren zirriborroa
- . Adingabeek egiten duten kirola uneoro eta testuinguru guztietan heziketa parametroen pean garatzea bermatzearen komenigarritasunari buruz Arartekoak emandako 6/2011 gomendioan jasotako kontsiderazioei dagokienez Eusko Legebiltzarrak eskatutako txostena
- . Kirol eskoletako partaidetza datuak



*1) 2012ko maiatzaren 8ko bilkurako akta irakurtzea eta onartzea*

Fernando Urienek eskatu du jardunaldiak ez errespetatzeari buruz amaieran esaten dena zuzentzea, hain zuzen kontrakoa delako: jardunaldiak finalerdi eta finalez osatzen ziren, baina klubek ez dituzte arauak betetzen eta zentroek ez dituzte diru laguntzak jasotzen.

Ñabardura horiek eginda, akta onartu egin da.

*2) 2012-2013ko jarduera programaren zirriborroa*

- Arkaitz Angiozarrek proposatu du Oarsoaldean kirol eskolen jarduera urriaren 1ean hastea. Imanol Fernández de Larrinoak adierazi du ezen, araudiaren arabera eskolek irailean eskatu behar badute ere baimenaren luzapena, jarduerak goizen urrian hastearren, egiaz jarduerak irailean bertan hasten direla.
- Eskatu du, halaber, Gipuzkoako futbol, saskibaloia eta eskubaloia txapelketak, kimu mailakoak, asteburu batean egitea. Imanol Fernández de Larrinoak aipatu du Donostiako eskola kirolaren batzarrak antzeko eskaera bat egin duela, hain zuzen txapelketa horiek ekainean zehar egin daitezkeen, maiatzean artean segitzen baitute toki lehiaketetako jardunaldiek. Gaia dagokien federazioekin hitz egingo da, lehiaketa horietako jardunaldi kopurua murriztearren.
- Gipuzkoako Saskibaloia Federazioak eskatu du taldeen izen emateetarako datak irailaren 16ra aurreratzea. Adierazi dute hori posible dela haur eta kadete mailetan, ez baina benjamin eta kimu mailetan.
- Piraguismo modalitatean, jarduera programan adierazten bada ere jarduerak kimu mailan hasten direla, benjamin mailako eskolaumeekin hainbat jarduera zertzen ari dira bai Zumaian bai Club Náutico-n.
- Curling-aren kasuan, hastapen kanpaina bat sartzeari eskatu dute.
- Aldaketak sartu dira errendimenduan hasteko jardueretarako federazio lizentzien tramitazioan.
- Arau orokorretan sartu egin dira Arartekoaren 6/2011 ebazpeneko gomendioetako batzuk.

*3) Eskola kiroleko monitore ikastaroa*

Aurreko bilera batean eman zuten horren informazioa. Ikastaroaren ebaluazio positiboa egin da.



Pako Urrestarazuk aipatu du ikastaroa egin izana frogatzeko ziurtagirien bidalketaren gainean galdetu diotela. Imanol Fernández de Larrinoak erantzun du asmoa dutela ikastaroa eman duen Asmoz Fundazioarekiko hurrengo bileran gaia jorratzeko.

*4) Errendimenduan hasteko Euskadiko Txapelketa eta Euskadiko Jokoak*

Dena ondo joan da ekitaldi hauetan bietan.

*5) Arartekoaren gomendioari buruzko txostena Eusko Legebiltzarrari*

Gai hau aipatu da jada, eta Legebiltzarrera igorritako txostena banatu da.

*6) Eskola futbolari buruzko akordioen jarraipenerako batzordea*

Federazioak konpromisoa hartu du hastapeneko adinak errespetatu eta partidak jokatzeko Lesakara bidaiatzea eragozteko. Oraingoz, jarrera egokia duela dirudi.

Aipatu egin dute Antiguokori eta honen kontra jokatzeari uko egiten dioten Donostiako klubei buruz prentsan agertutako albistea.

*7) Kirol eskoletako partaidetzari buruzko txostena*

Imanol Fernández de Larrinoak esan du gaizki zeuden datu guztiak zuzendu dituztela.

Arkaitz Angiozarrek aipatu du 2. urteko kimu mailan partaidetzaren jaitsiera handia dagoela, eta galdetu du ea daturik falta den 0 agertzen den laukietakoren batean.

Pako Urrestarazuk galdetu du eskolentzako baimena automatikoki luzatzen den, horien funtzionamenduan gorabeherarik detektatu ez den kasuetan. Goierrin irregulartasun batzuk salatu behar dituzte.

Fernando Urienek adierazi du Zarauzko eskola batzuen kasuan ere irregulartasunak gertatu direla; beraz, horiek ere ez leudeke baimena automatikoki luzatzeko egoeran.

Imanol Fernández de Larrinoak eskatu du Aldundira bidaltzea kasu horietan bietan detektatutako irregulartasunak jasotzen dituen idazki bat.

*8) Bestelakoak*



Fernando Urienek dio Zarauzko ikastetxeek E1-i dagozkion diru laguntzak jasotzeke segitzen dutela. Imanol Fernández de Larrinoak erantzun du aurten udaletarako diru laguntzak beranduago eman direla.

Pako Urrestarazuk adierazi du ez dutela bidaiengatiko diru laguntza gisa jasotzen den diruari buruzko informaziorik, eta galdetu du beste urte batzuetako diru laguntzen kalkulurako zenbatekoa mantentzen den.

Asier Sarriegik erantzun dio ezetz, jaitsi egingo dela, eta aurrerago desagertu egingo dela, garraio publikoko mugikortasuna finantzatzeko.

Pako Urrestarazuk dio herri txikietan hori ez dela posible.

Asier Sarriegi adierazi du 2013ko urterako birbideratu egin behar direla laguntza horiek.

Arkaitz Angiozarrek hainbat kontu aipatu ditu Eibar, Lezama eta beste toki batzuetan egin diren errendimenduan hasteko txapelketei buruz. Futbol txapelketen eta beste modalitateetako en antolaketan arteko aldeak aipatu ditu. Dirudienez, Athletic-ek aldeak ezartzen ditu, haur txikienengandik hasita.

Imanol Fernández de Larrinoak dio futbolaren kasuan txapelketa horietan bederatzi talde direla, partaide kopuru orokorra beste modalitate batzuetakoa baino askoz handiagoa delako. Joko-zelaiei dagokienez, gutxienez hiru joko-zelai dauzkaten instalazioak bilatu dira, eta bide batez bidaiei dagokienez erraz iristekoak direnak. Orain urte asko erabaki zen bederatzi talde izatea mailako, lurralde historiko bakoitzeko hiru, eta hiruko lehiaketak jokatzea, hiruna taldeko hiru multzo osatuta.

Eta, aztertzeke beste gairik ez dagoenez, hasieran adierazitako eguneko 18:45ean amaitu da bilera.

Presidentea

Idazkaria